

KANALAK



Gure ideia bezeroei helarazteko eta batez ere ezagutzera emateko, komunikazio kanal sendo eta estrategiakoak beharko ditugu, horregatik publizitate erakargarria sortuko dugu. Hau da, eslogan xarmagarri bat sortuko dugu eta kartelak sakabanatuko ditugu eskualde osotik, errepideetatik zoazenean ikusteko kartel izugarriak kokatuko ditugu, gainera sare sozialak sortuko ditugu internetetik jendeak ezagutu ahal izateko.

Ez bakarrik hori, gure zerbitzua martxan jarriko ditugun supermerkatuekin kolaborazioak egingo ditugu eta haien iragarkietan aterako da gure produktua.

Salmenta-kanalak, zerbitzu bat eskainiz emango ditugu, hau da, ez dugu ezer fisikoki salduko dirua irabazteko, baizik eta behin produktua martxan egonda, udalak gure zerbitzua eskaintzeagatik dirua emango digu mantentzeko.

Baina dirua beste modu askotan ere irabaziko dugu, adibidez bezeroak zerbitzua erabiltzeagatik ordainduko digutena edo supermerkatuan jasoko ditugun komisioetatik haien produktuak saltzeagatik, eta hazi ahala, Estatu mailan eskatutako laguntzentatik ere lor dezakegu finantzazio gehigarri bat.